



ONDARROAKO UDALA



## “2021 UDARAKO UDAL BONUA” KANPAINA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

**1.-HELBURUA.** “2021 Udarako udal bonua” herriko kontsumoa suspertzeko proiektua da. Proiektu hau Ondarroako Udalaren ekimena da, Zatozte Ondarroako Merkatari eta Ostalarien Elkartearekin lankidetzan.

**2.- BONUAREN EZAUGARRIAK.** Herriko kontsumoa suspertzeko ekimena da. Bonua 16 urtetik gorakoentzat da, 16 urtekoak barne (2005urtean jaiotako guztiak). Udalak guztira 2.000 bonu jaulkiko ditu. Bonu bakoitzak 10,00euroko balioa izango du. Onuradun bakoitzak bi bonu eskuratu ahal izango ditu. Erosketa 30,00€ -60,00€ euro artekoa bada, bonu bakarra erabili ahal izango da. Eta erosketa 60,00€ edo gehiagokoa bada bi bonu erabiltzeko aukera izango da. Erosketa faktura sinplifikatu bidez egiaztatuko da.

**3.-BONUA ESKURATZEA.** Bonuak Ondarroako Turismo Bulegoan jaso ahal izango dira eta Nortasun Agiria aurkeztu beharko da bonua eskuratu ahal izateko. Onuradunak 16 urte beteta edo 2021ean bete beharko ditu (2005 12 31 baino lehen jaiotakoa, alegia). Onuradunak 10,00 euroko balioa duen bi bonu eskuratu ahal izango ditu.

- Bonuak Ondarroako Turismo Bulegoan jaso ahal izango dira, eta Nortasun Agiria aurkeztu beharko da bonua eskuratu ahal izateko.
- Bonuaren onuradunak 16 urte beteta edo 2021ean bete beharko ditu. Eta onuradunaren N.A aurkeztu beharko da.
- Onuradun bakoitzak bi bonu eskuratu ahal izango ditu.
- Bonuak eskuratzeko epea 2021 06 08tik 2021 06 30 artekoa da. Salbuespen gisa, erakunde antolatzaileak epe hori luza lezake

**4.- BONUAK ERABILTZEKO EPEA.** Bonuak 2021 06 30 arte erabili ahalko dira, kanpaina honi atxikitako dendetan (erakusleihoan kanpainako kartela izango dute). Hala ere, beharizanen arabera, erakunde antolatzaileak epe hori luzatu ahal izango du.

**5.- SALTOKIEK PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.** Saltokia Ondarroan daukan pertsona fisiko edo juridikoa izatea eta bere jarduera nagusia JEZ-aren (Jarduera Ekonomikoaren Zerga) ondorengo epigraferen baten baitan sartzea



ONDARROAKO UDALA



<b>474 ARTE GRAFIKOAK (INPRIMAKETA GRAFIKOA)</b>
<b>491. BITXIAK ETA IMITAZIOZKO BITXIAK</b>
<b>641. FRUTA , BARAZKI ETA ORTUARI ETA TUBERKULUEN TXIKIKAZKO MERKATARITZA</b>
<b>642. HONAKO HAUEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA: HARAGIA ETA HONDAKINAK; HARAGI-PRODUKTU ETA -ERATORRI LANDUAK; ARRAUTZAK, HEGAZTIAK, BASERRIKO UNTXIAK, EHIZA; ETA HORIETATIK ERATORRITAKO PRODUKTUAK</b>
<b>643. ARRAINEN ETA ARRANTZAKO ETA AKUIKULTURAKO BESTE PRODUKTU BATZUEN ETA BARRASKILOEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA</b>
<b>644. OGI, PASTELGINTZA, GOZOGINTZA ETA ANTZEKOEN ETA ESNE ETA ESNEKIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA.</b>
<b>645. MOTA GUZTIETAKO ARDOEN ETA EDARIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA</b>
<b>647. ELIKAGAIEN ETA, ORO HAR, EARIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA.</b>
<b>651 OIHALGINTZA EKOIZKINEN, JANTZIGINTZA, OINETAKOGINTZA, LARRU ETA LARRUKI ARTIKULUEN TXIKIZKAKO SALMENTA..</b>
<b>652. SENDAGAIEN ETA FARMAZIA-PRODUKTUEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA; DROGERIAKO ETA GARBIKETAKO GAIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA; MOTA GUZTIETAKO LURRINGINTZA ETA KOSMETIKOAK; ETA, ORO HAR, PRODUKTU KIMIKOEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA; BELAR-DENDETAKO BELARREN ETA LANDAREEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA</b>
<b>653. ETXEKO EKIPAMENDURAKO ETA ERAIKUNTZARAKO GAIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA</b>
<b>659. TXIKIKAZKO BESTE SALTOKI BATZUK</b>
<b>67. ELIKADURA ZERBITZUAK</b>
<b>68. OSTATU ZERBITZUA</b>
<b>69. KONPONKETAK</b>
<b>755. BIDAIA AGENTZIAK</b>
<b>76. TELEKOMUNIKAZIOAK</b>
<b>887 MAKILLATZAILEAK ETA ESTETIZISTAK</b>
<b>91. NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, BASOGINTZA ETA ARRANTZAKO ZERBITZUAK</b>
<b>945. ALBAITARITZAKO KONTSULTAK ETA KLINIKAK</b>
<b>971. GARBITEGIAK, TINDATEGIAK ETA ANTZEKO ZERBITZUAK</b>
<b>972. ILE-APAINDEGIAK ETA EDERTASUN INSTITUTUAK</b>
<b>973 ZERBITZU FOTOGRAFIKOAK ETA FOTOKOPIAK</b>



ONDARROAKO UDALA



**979.4. ANIMALIAK TREBATZEA ETA ETXEKO ANIMALIEI ARRETA EMATEKO BESTE ZERBITZU BATZUK.**

**999 BESTE ZERBITZU BATZUK (Beste batzuetan sartu gabekoak)**

**6.- KANPAINARA ATXIKITZEA.** Kanpaina honetara atxikitze epea 2021 06 07tik, kanpaina bukaera arte. Kanpaina parte hartu nahi dutenek ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute

- Kanpaina atxikitze eskaera
- EJZren alta dokumentuaren kopia
- Dokumentazioa Zatozte Elkartearen bulegoan (Kantoipe z/g) entregatu beharko da (9:30-14:00).

**7.- ESTABLEZIMENDUEK BONUAK ETA AGIRIAK ENTREGATZEA.** Kanpaina atxikitako enpresek bonu originalak, bonua erabiliz egindako erosketari dagokion faktura sinplifikatua eta oinarri hauetako I. Eranskina behar den moduan beteta entregatu beharko dituzte. Agiriak entregatuko dira Zatozte Elkartearen bulegoan (Kantoipe z/g) (9:30-14:00). Horretarako, epea 2021 07 01tik 2021 07 06era (biak barne) izango da.

**8.- SALTOKIEI BONUAK ORDAINTZEA.** Bonuak entregatu ondoren, Ondarroako Udalak bonu horiek berrikusi eta baliozkotu egingoko ditu.

Akatsak antzeman ez gero, establezimenduko arduradunari 10 egun balioduneko epean hauek zuzentzeko eskatuko zaio.

Eskabideak aurkezteko edo zuzentzeko epea amaitu eta gehienez ere 30 eguneko epean ordainduko dira, eskabidean zehaztutako kontu korrontearen zenbakian.

**9.- ATXIKITAKO SALTOKIEN BETEBEHARRAK.** Kanpaina atxikitako saltokiek ondorengo betebeharrak bete beharko dituzte:

- Faktura sinplifikatu bidez justifikatu beharko dute erosketak. Kontuan hartuta, erosketak 30,00€ - 60,00€ euro artekoak denean bonu bakarria erabili ahal izango dela (60€ko erosketak denean bi bonu). Eta erosketak 60,00€ edo gehiagokoak denean bi bonu erabiltzeko aukera egongo dela.
- Oinarri hauetan zehaztutako epeak betetzea.
- Erakusleihoan (edo ikusteko moduko tokian) kanpainako ikurrak jartzea.
- Kontsumitzaileei kanpainaren ezaugarrien berri ematea.
- Ondarroako Udalarik eskatutako informazio eta agiri guztiak ematea, kanpainako baldintzak behar bezala bete direla egiaztatzeko.

**10.- EZ BETETZEAK.** Oinarri hauetan zehaztutako epeak eta baldintzak betetzen ez badira, sortutako edozein ordainketa eskubide galduko da.



ONDARROAKO UDALA



**11.- IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA.** Kanpaina honetan lortutako datuak Ondarroako Udalaren titulartasuneko fitxategietan gordeko dira, kanpaina honetako baldintzak aplikatzeko soilik. Atxikitako establezimenduek datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, helbide elektronikoa honetara mezu bat bidalita: [orokorra@ondarroa.eus](mailto:orokorra@ondarroa.eus), 3/2018 Lege Organikoaren arabera.

Ondarroan, 2021eko ekainaren 3an

IDAZKARIA

JOSE URRAZA ALDAYTURRIAGA